

B

BARREN







Alfonso XIII.a erregeari bularra eman zion emakumea

Josefa Etxaniz, Antxusieta Goikoa baserrikoa



Ezagut ezazu zure alderik freskoena



"Teikitan  ezagutu nuen nire alderik freskoena, babarrun-ale lehor batetik gutxin eder berria sortu zela ibusi nuenean. Bizialk eta naturalak aurrera egiten zuten gure  harridura eta goyamenerako. Eta orain, horrenbeste  urte pasa direnean, zirrara bera sentitzen  dut, baina Udal Merkatuan oraingoan.  Bertan inguru natural batera bainaramate  boloreek, usainek, tratu atseginak eta balitatezko produktuek. % 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako."

Eros ezazu zure **Udal**
Merkatuan

Talk show

“Zuetako inor nirekin oheratuko litzateke?”. Jon Salaberrik Elgoibarko Institutuko areto nagusian, egindako galdera da, 1993. urte aldera.

HIESaren eta sexuaren inguruko zalantza eta beldur handiak zeudela gogoratzen dut. HIESa txistuak kutsatzen ote zuen, kondoiak saltzeko makinak institutuan jartzeak, gaisotasunaz hitz egiteak eta “jar ezazu; jar iezaiozu” moduko kanpainak gaztetxoak, gu alegia, sexu harremanak izatera bultzatzen zituela...

Jonek Areto Nagusi hartan geunden gutako bakoitzari hitz egingo balio bezala egin zuen berba; zuzen-zuzenean, helduak bagina bezala (bagina bezala). Homosexualitateaz, drogazaletasunaz, sexuaz... bere bizitza kontatu zigun, zehaztatsun handiz, adonurik gabe, beldurrik gabe. Gerora jakin dut kosta egiten zitziola bere burua jende aurrean horrela biluztea, informazioaren mesedetan bere intimitatea galtzeko hautua egin zuela.

Urte asko pasatu dira Jon Salaberri bere orduko kontestuan kokatu dudana arte. 90.eko lehen urte haietan HIESak jotako inork gutxik ematen zuela aurrea, HIESaren prebentzio lanean aktibista zela bera, bera bezala gaixotasunak jota zeudenentzako adibide izan nahi zuela, haien ere beldurra galdezaten, laguntza eskazezaten. Eta gu bezalako “heldu usteei” gauzak argi eta garbi azaltzeko beharra ikusten zuela. Ez dakit areto hartan ziren gainontzekoek oroitzapenik gordetzen duten, ez eta kontatutakoak zehazki horrela gertatu ziren ere. Urteak pasatu dira bera hil zenetik, nik ez dut ahaztu, ez bera ez eta bere lezioa. *Talk show* saio eraginkorra izan zen, bai horixe.

bide izan nahi zuela, haien ere beldurra galdezaten, laguntza eskazezaten. Eta gu bezalako “heldu usteei” gauzak argi eta garbi azaltzeko beharra ikusten zuela. Ez dakit areto hartan ziren gainontzekoek oroitzapenik gordetzen duten, ez eta kontatutakoak zehazki horrela gertatu ziren ere. Urteak pasatu dira bera hil zenetik, nik ez dut ahaztu, ez bera ez eta bere lezioa. *Talk show* saio eraginkorra izan zen, bai horixe.

Alaitz Vives



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Zuetako inor nirekin oheratuko litzateke?”

Alderdi demokratik irabazi dituzte Estatu Batuetako hauteskundeak.

Obamarekin etorriko da benetako aldaketarik?

**Herritarren erantzunak
BIDEO IKESTAN**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



“Gozatu egin dut idazten”



ANGEL UGARTEBURU

Jubilatuta bai, baina erretiratuta ez dagoela erakutsi du Angel Ugarteburuk. Aspaldian idatzitako testuak eta ipuinak batu, berridatzi eta argitara eman berri ditu, “Milioitik mundura. Ume-denporako oihartzunak” liburuan. Umetan entzundako kontuak eta bizi izandako istorioak jaso ditu, beti ere hizkuntzaren musikari garrantzi berezia emanez. Pozik dago egindako lanarekin, baina poz handiagoa ematen dio, esaterako, ikasle izan dituen neska-mutilen idazlan txukunak topatzen dituenean. “Arno, piztiak eta bandiduak” liburu kaleratu berria, esaterako, goraiatu egin du eta zabalkunde handiagoa merezi duela uste du. Gaur, barixakua, 19:00etan Pitxintxun egongo da Angel liburuak sinatzen.

Lehenago ere liburugintzan jardundakoa zara. Kirikiñoren *Abarrak* euskara batuan eman zenuen...

Irakasleak bildu ginen. Ordurako Eibarko ikastolan nengoen. "Testuak falta dira", esaten genuen. Nik Kirikiño ezagutzen dut ondo. Haren istorioak oso biziak dira, gatz eta piperdunak, laburrak, errazak. Suarekin beza-la, lehenengo *abarrak* behar dira, irakurzetanunari indarra emateko: gauza meheak, arinak. Neuk jarri nituen euskara batuan. Modismoen bilduma bat egin nuen eskolan erabiltzeko. *Bigarren Abarrak* libururekin gero antzeko zerbait egin nuen. Euskara biziaren bila joan behar genuen eta euskara bizia euskara batukotzat hartu.

Orain argitara emandako lanarekin gustura gelditu zara?

Nik batuan neukan lana eginda. Elkarriketako zatiak kurtsiban jarrita neuzkan, fonetismo eta guzti, hizkuntzaren musika jaso nahi nuelako. Hortaz, lagunei erakutsi nien dena lotu nuenean. Semearen ezkontzarako sorpresa-txoa prestatu nahi nion, eta eman nion ordenagailuz egindako koadro txukun bat, erretratu eta guzti: "Hemen daukazu nire ume-tako istorioak". Beste laguneren batzuei ere eman nizkien, Xabier Amurizari eta Gotzon Garateri, Juan Luis Goikoetxeari. Heldu zen Mendiguren Elizegiren eskuetara, eta zera esan zidan: "Merezi du. Elkarren ez dugu sail bat honelako generorako. Labayrura zoaz". Joan nintzen, liburua han utzi eta bizkaieraz jartzeko eskatu zidaten. Egin nuen. Dena jarri nuen bizkaieraz eta elkarriketek kurtsiban jarraitzen dute, fonetismo eta guzti. Konforme geratu naiz, bai. Edizio zaindua da. Konforme nago eta ez daukat damurik. Askotan

collage itxura dauka liburuak, baina badago hari bat. Norberaren etxeko familia eta baserriaren historia da ardatza.

"Etxean edandako euskara bizi horrek beste balio bat dauka"

Zelan batu dituzu idazkiok?

Idatzia neukan anaiak soldadu egon zirela, anaia batek gerran soldadutzatik Iparraldera alde egin ondoren 1945ean kontzentrazio eremuan egon zela eta handik bertsoak bidali zituela... Orduan baneukan material bat historikoa, familiarra, bertso eta guzti, argitara eman gabea. Ekintza batasuna ematen hasi nintzen gauzei, haria ematen: baserriko bizimodu normala, gero gerrako kontuak eta entzundako gauzak (batalloi bat geurean geratu zen gaua pasatzen, faxista italiarrak). Sorkuntza lana batu eta hari bat eman diot. Prehistoria pixkat egin dut (ni jaiotako aurretikoa, etxean entzuten nuena) eta gero nik bizi izandakoa eta horren inguruan entzuten nituenak eta eskolako, familiako eta baserriko gorabeherak, hamabi urtera arte.

Pasarteak zelakoak dira?

Batzuk historia dira, batez ere gerra ingurukoak: bertsoak, gertaerak, esaerak, gerrako pasadizoak. Horiek, hari bat osatzen dute. Bestelakoak ere badaude: anaiek soldadutzatik-eta bidaltzen zituzten eskutiz eta bertsoak. Horrez gain, eskolako kontuak ere ja-

so ditut: Francoren sasoian *Cara al sol* kantatzen, bandera jaso, Falangeko Campamento de Frente de Juventudes... Berriatuko elizan eta Milioiko ermitan jaiak nolakoak izaten ziren, Santa Eufemiara irteerak... Anekdotario bat dago, irteera txisposoak. Gero aprobetxatu dut baserriko bizimodu ekartzeko: tresnak, lanak, bizimodua...

Orduan lan autobiografikoa ez eze etnografikoa ere bada, ezta?

Alde etnografikoa ere badauka, baina astuna ez izateko saiatu naiz txispa ere sartzen, pasadizo, istorio edo txiste batzuen bidez.

Beste libururik idazteko gogoz zaude?

Gozatu egin dut idazten. Norbere buruaren terapia legez ondo dago, pentsatu nuen. Hamabi urtetik gorako kontuak eta gainontzeko kontu horiek gozatzeko aukerarik emanez gero, jarraituko nuke idazten. Batzuk eginda daukat: seminarioko bizitzaren parte batzuk, esaterako. Baina ez du izango honek duen balioa: euskara bizia jasotzea, etxean edoski edo edandako euskara bizi horrek beste balio bat dauka. Bestea bigarren mailakoa da. Zer esana bada go baina bizitasuna ez da bera. Idatzi beti idatziko dut.

Blogaria zara orain. Ondo moldatzen zara?

Kanadara joan aurretioxan, Alberto Agirre-azaldegik Laponiara egindako bidaiaren ingurukoa polita iruditu zitzaidan, eta neuk ere parte hartzea pentsatu nuen. Anaia daukat Kanadan eta banekien euskal jendearekin hartu-emana izango nuela. Hiru-lau izango zirela pentsatu nuen, eta asko egin ditut. Hamalau artikulu falta dira.

Oier Narbaiza

HAINBAT DATU...

- ▲ 1942an jaioa, Ikaran Nagusia baserrian, Berrituko Milloi auzoan. Hamabi urtera arte bizi izan zen baserrian. "Nire munduaren erdigunea huraxe izan zen, Ikaran bera". Ordura arteko pasarteak jasotzen ditu argitaratu berri duen liburuan.
- ▲ Derioko seminarioan hamar urte eman zituen. Giro politiko nahasia zela eta, hutsualdi handia hartu zuen seminarioak 60ko hamarkadan. Beste askoren moduan apaizgintza laga zuen, euskararen munduari eta irakaskuntzari heltzeko.

- ▲ Ikasketak Erroma eta Deustuan osatu zituen.
- ▲ Zornotzan 1968an ekin zion euskara irakasteari, arratsalde eta gauetz. Lan hori boluntarioa zen. Lekeition gauza bera egin zuen.
- ▲ Eibarko Mogel ikastolan sei urtez jardun zuen. Ikasleek euskaraz zer irakurri ez zuten, hainbat testu moldatu zituen. "Ipuinak eta bertsoak egiten nituen eta beste irakasle batek, marrazkiak".

- ▲ Kirikiñoren *Abarrak* euskara batura moldatu zituen Elkar argitaletxearekin.
- ▲ Elkar argitaletxearekin testugintzan jardun du, Elgoibarko Institutuan jardun zuenetik. Material falta zela-eta, Elgoibarko euskara mintegia osatu zuen, Andres Alberdi, Myriam Villasante, Inazio Garmendia eta Markos Balenziagarekin batera.
- ▲ 2007ko urtarilean jubilatuta arte, Elgoibarko institutuko irakasle izan da.
- ▲ www.elgiobarren.net atariko blogean Kanadako pasarte berri ematen du.

NAHIDON?

Titia ematen

Josefa Etxanizen bularra, erregearen janari

Antxusieta Goikoa baserriko Josefa Etxanizek, 1886ko maiatzaz geroztik, Alfonso XIII.a erregeari bularra eman zion, oraingo Espainiako erregearen aititari.

Oier Narbaiza

Josefa Etxaniz, Alfonso XIII.a erregea besoetan duela.



S Josefa Ignacia Etxaniz oso emakume eder eta fina zen, atentzioa ematen zuen horietakoa. Urruzuno bailarako Antxusieta Goikoa jaio zen XIX. mendearen bigarren erdialdean. Ermuaran-Sallobenteko Agarrera ezkondu zen lehengusu batekin, Azkoitiko Aldazabaleko Miguel Etxanizekin. Ezkondu eta gero, lehen umea espero zuten Josefak eta Miguelek. 1886. urtea zen.

Saso berean, Maria Cristina Habsburgokoa ere, Espainiako erregina, haurdun zegoen, baina Alfonso XII. erregea hil egin zen umea jaio aurretik. Borbondarrek bi alaba zituzten, baina bidean zetorrenak jaiotzean hartuko zuen errege titulua, gizonezkoa zen-eta: Alfonso XIII.a izango zen.

**Josefari umetxoa hil zitzaion,
errege jaio berriari
bularra emateko
norbait behar zutenean**

Maria Cristina erreginak ez zion bularrik eman errege jaio berriari, batek daki zergatik, baina lehen aberatsek-eta ama gazteak kontratatzen zituzten zeregin horretan jarduteko. Elgoibako Josefari ume jaio berria hil zitzaion eta bularra emateko moduan zegoen. Miguel senarrak San Pedro fabrikan lan egiten zuen, eta errege jaio berriari bularra emateko norbait

behar zutela jakin zuen. Josefak hasieran ez zuen nahi izan, baina azkenean bere burua aurkeztu zuen. Beste bi emakume gehiagok eman zuten izena, baina bera aukeratu zuten. Itxura fisikoa, osasuna eta jarrerak hartuko zituzten kontuan.

Gerora erregearen familiarekin hartu-eman estua izaten jarraitu zuen

Senarra Elgoibarren gelditu zen, Josefak erregeari bularra eman zion hilabetetean. Besteak beste, Madrilen, Bartzelonan eta Parisen ibili zen, erregearekin. Alfonso XIII.a jaiotzetik errege bazen ere, koroaren ardura Maria Cristina amaren eskuetan egon zen, adinez nagusia izan zen arte, 1902ra arte.

Pentsatzekoa da journal ona irabaziko zuela Josefak eta erderaz nahiko ondo moldatuko zela. Bueltan etorri zenean, baserriko lanei ekin zien berriz ere. Hala ere, erregearen familiarekin hartu-eman estua izaten jarraitu zuen. Hainbat eskutitz eta opari bidaltzen zizkieten. Urteetara, esate baterako, Alfonso XIII.a Victoria Eugenia Battembergekoarekin ezkondu zeneko argazkia bidali zioten.

Josefak eta Miguelek urte batzuk egin zituzten Agarre baserrian, geroago Gelatxo bizi izango zen etxean. Baina ezkondu eta 20-30 urtera Arostegira jaitsi ziren. Josefa entzute handiko emakumea izan zen gero Elgoibarren.

Alfonso XIII.aren erregealdiak hasiera eta akabera bitxia izan zuten: bularra elgoibartar batek eman eta eibartarrak izan ziren erregea kentzeko altxatzen lehendabizikoak. Izan ere, Espainiako Bigarren Errepublikarekin amaitu zen Alfonso XIII.aren agintaldia, 1931ko apirilaren 14an.

BARRENeK eskerrak eman nahi dizkio Arostegiko Marisol Etxanizi, Josefa eta Miguelen bilobari, istorio hau osatzeko emandako laguntzagatik eta lagatako argazkiengatik.



Alfonso XIII.aren ezkontzako argazkia bidali zioten Josefari.



Errege-etxetik hainbat eskutitz, opari eta argazki bidali zizkieten Josefari. "Maria Cristina, 2 años 1/2" eta "su ama Josefa Etxaniz" irakurri daiteke. Beharbada Alfonso XIII.aren alaba izan liteke (1911an jaioa), nahiz eta ondoko data bat ez datorren datuarekin ("1903").



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Krisia badator!

Krisia datorren edo dakarkiguten ez dakigun honetan, sistema kapitalista iraurarazteko hainbat neurri hartzen ikusi ditugu Europa zein mundu zabaleko gobernuak, diru publikoaz banku eta abarrak lagunduz. Zuzenean edo zeharka arragiten diguten neurriak dira finean. Bertatik bertara, PNVko diruzaleek eta EAKo sozialdemokratek (ezkerrekoak omen direnak) elkartean gaineko zerga jaistea adostu dute eta horrela diru piloa biltzeari uko egin zaio. Langileok, ordea, ez dugu horrelakorik ikusiko errenta aitortpena egiterakoan edo izugarri igo dituzten udal zergak ordaintzerakoan. Zintzo demonio ordaindu beharko ditugu guztiak. Diru hori nora bideratuko den... AHT, errauskailua, Pasaiako portua eta gainerakoak egingo dituzten enpresariengana, noski. Bitartean, pelikula honetan ikusle-sufritzaile soilak izatea tokatu zaigula dirudi.

Lan eta bizi baldintzak okerrera egiten ari direla errealitatea da gaur egun. Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira baldintza okerrenak sufritzen dituzten herri sektore nagusiak. Oraingoan ere, beraiek izango dira kaltetuenak, batzuentzat beti da krisi garaia. Gainera, momentua nahiko gordina ez eta, enpresari askok zailtasun egoera hau baliatu nahi dute etekina ahalik eta handiena izan dadin. Krisiaren aitzakiapean langileak kaleratzea, lan orduen flexibilizazioan sakontzea, lan hitzarmenetan txantaia egitea eta lan baldintza hiltzaileen hedatzea, gure enpresaburu abegikorren estrategien artean daude. Irabaziak dituzten enpresek horrelakoak egitea ezin da jendartearen erantzunik gabe geratu.

Sistema kapitalista gure zilborrari begira egon gintezen arduratu da urte luzetan eta bai lortu ere. Urte luzetan langileriaren borroka lortutakoa atzera bidean jarri dugu geure itxukeria eta perspektiba falta medio. Orain ere, krisia maila pertsonaleko arazoetan ito nahi dute: hipotekak, zorrak... Baina etxebizitza galtzeko arriskuan dagoenak, hipotekari aurre egin ezin diolarik, ez luke arazoa indibidualki ulertu behar. Arazoa estrukturala da, erantzunak behar duen bezala. Gaur inoiz baino garrantzitsuagoa da langileok antolatu eta elkar hartuta gure eskubideak borrokatzea, desberdintasunen gainetik, lanaren eta aberastasunaren banaketa orekatu bat helburu.

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☞

Elgoibarko institutuko ikasleria SOS

Ez dago herri askerik pertsona askerik gabe, ez dago pertsona askerik herria ez bada hezkuntzaren jabe. Hori da abesti ezagun batek dioena eta ez zaio arrazoirik falta. Gaur egungo hezkuntza sistemak gazte akritiko eta sumisoak sortzen ditu, inposatzen diguten sistema kapitalistaren engranaje perfektuak. Ikasle indibidualista eta kompetitiboak sortuz, kolektibo izaera desegin eta enpresarien neurria egindako formakuntza eskaintzen digute, inolaz ere bizi dugun gizarte ereduak kuestionatuko ez dutenak. Hala eta guztiz, bada beste herri eredu batean sinesten duen gazteria, gazteriaren eta ikasleriaren eskubide urraketak pairatu eta berauek borrokatzen dituenak, alternatibak eraikiz, mobilizatuz...

Baina, beti bezala, mobilizatzen dena molestoa da, sistema kritikatzeko duena

molestoa da, bere eskubideen alde borrokatzen duena arriskutsua da!

Elgoibarko Institutuak ez ditu ikasleen eskubide demokratikoak onartzen eta greba eskubidea etengabe urratzen du. Horren adibide garbia da aurreko ostiraleko mobilizazio egunerako paroak konbokatuta zirela, bertako antolakuntza eta jarduerara araudia errespetatuz, baina beste behin ere zuzendaritzak azken momentuan parorako baimena ukatu zuen. Paro konbokatuta zuen ikasle taldeak, hori ikusirik, klasez klase ikasleria informatu eta paroarekin jarraitzeko determinazioa erakutsi zuten. Zuzendaritzari ez omen zitzaion ongi iruditu ikasleria informazio horren jabe izatea eta horrela jarraitu ezker kanporatuak izango zirela esanez mehatxatu zituzten.

Ez dizuegu utziko ikaslearen eskubideak zapaltzen, mehatxu guztien aurrean herri aske bat eraikiko dugu, ez gaude prest sistema kapitalistaren engranaje perfektuak bihurtzeko. Aurrean duzue borrokatuta duen ikasleria, makurtzen ez den gazteria, mehatxu guztien gainetik mobilizatzen jarraituko duena. Hau dela eta Elgoibarko ikasleok greba eskubidearen aldeko borroka tinkoa martxan jarriko dugu.

Gazte independentistak ☞

Esker onak

San Lazaro egoitzako langile guztie eskerrik asko hamabi urtetan zehar gure amari eskaini diozuen zaintza, arreta eta maitasunagatik. Bere bigarren familia izan zarete. Oso ondo zaindu duzue azken unera arte. Mila esker bere senide guztien partetik, bihotz bihotzez.

Ana M^a Bilbao Aranaren senideak ☞

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxe: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Maialen
Olazabal


Bazkaloste-ko kafea hartu dut. Mikel goxo ari da kantuan, baina ni goxoago nago sofan etzanda mantapean. Leihoak euri tantaz josita daude eta haizeak Bilboko kaleak dantzan jarri ditu. Orri zuri bat hartu, idazten hasi eta aroma berezidun letrak irteten dira.

Duela gutxi hasi naiz zapore berezi hau dastatzen. Txikitan iluna eta beltza iruditzen zitzaidan. Agian garai berrien adierazle izango da, ez dakit. Kafea.

“Kafe baten inguruan ilusioak, bizipenak, ametsak eta jendea biltzen dira”

“Kafe bat hartzeko geratuko al gara?”. Zenbatetan esan dugu hori eta gero sekula kaferik hartu ez. Baina goxoa da, eta badakizu hori esanda zure aurrean kafea zupatuko duenak entzungo dizula. Kafea izotzarekin, bonboi batekin, izozkiarekin... nahi duzun modura baina norbaitekin. Kafea konpartitu beharreko hizketaldi baten partaidea da. Gustuko dut ostiral ilun eta iluntzeetan kafea eskuetan hartu eta astegunaren analisia egin eta aldi berean, asteburuko ilusioak abian jartzea. Kafe baten inguruan ilusioak, bizipenak, ametsak eta jendea biltzen dira.

Bilboko mantapetik Ane, kafea bukatu zait. Goxoa zegoen, oso, eta beste bat prestatuko dut zure erantzuna jasotzen dudanean. Muxu bat.



Ane
Odria

Kafe usainez iritsi zaizkit zure hitzak Gasteizera, Maialen. Goxoa zegoela diozu eta beste bat prestatuko dizula nire erantzuna jasotzen duzunean. Prestatu bai, oso gustura egoten naiz eta kafearen inguruan berriketan.

Gustatzen zait kafearen atzean dagoena niri ere, izan ere, lagun batekin kafetxo bat hartzeko geratzeak uste baino gehiago esan nahi du. Azken aldia ikusi gabeko lagunari “kafetxo bat?” esatean, benetan berarekin gogoratzen zarela eta oraindik ere zure bizitzan tokirik baduela esaten ari zara. Ez da gutxi. Eguneroko alboan daukazun lagunari “kafetxo bat?” esatean, egunerokotasun horrek ez zaituela aspertzen eta ordu erdiko tartetxo hori ere berarekin konpartitu nahi dizula esaten ari zara. Bada zer-bait hori ere.

“Ea kafetxo bat hartzeko geratzen garen gu ere”

Bi hitz horiek ezkututzen dutena ezin da bestela adierazi eta horrek ematen dio berea “kafetxo bat?” esateari.

Maialen, esandako denak esan eta gero, ea prestatu duzun kafe hori ez zaigun gehiegi hozten eta egun hauetako batean kafetxo bat hartzeko geratzen garen gu ere. Datorren ostiralean, ondo?



Elgoibarko Udala



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Alderdi demokratiko hautagaiak irabazi ditu Ameriketako Estatu Batuetako hauteskondeak. **Igarriko dugu aldaketarik Barack Obama presidentearekin?**



Alex Aranzabal
36 urte, teknikari arduraduna

Baietz espero dut, hori esan dute behintzat, eta uste dut aldaketaren bat igarriko dugula. Nik neuk, nahiago nuen Obamak irabaztea. Ez dakit zergatik, beharbada medioen eraginagatik izango da. Egia esanda, amaierarako aspertu egin naute.



Anartz Oñederra
39 urte, txofer banatzailea

Ez dakit egongo den aldaketarik, baina denek baietz esaten dute. Ikusi egin beharko da, baina baietz uste dut. Ez dut asko ulertzen gai hori, eta gainera Estatu Batuetako hauteskondeak diferenteak dira. Ez dut gaia asko jarraitu, ez dut telebista asko ikusten.



Ramon Aranburu
73 urte, jubilatua

Baietz uste dut, aldaketak egoitea komeni da behintzat! Estatu Batuetako ez tula hemengo gripea dela esaten dute, eta guri ere eragingo digu erabaki horrek. Bushek baino lan hobea egingo duela uste dut, ez da zaila! Gaur pozik egoteko arrazoiak baditugu.



Rosa Galarraga
49 urte, etxeoandrea

Ez dakit! Aldaketa egongo dela esan dute behin eta berriro, baina hori ikusi egin beharko da. Nik ez ditut gehiegi jarraitu Estatu Batuetako hauteskondeak, nahikoa izaten dugu hemengoekin. Egia esanda, aspertu egin naiz medioetan agertu den guztiarekin.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Urriko irabazlea: **MARIA LUISA CONDE**

Azaroako saria: **BETILEEN TINDAKETA ETA PERMANENTEA, ETA PEDIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelchenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



Plaza Handitik Pilar ikastetxera doan espaloia arriskutsua da: “N-634 errepidean dagoen espaloia oso arriskutsua da. Ez dago barandarik, eta egunen batean zeozer larria gertatuko da. Lehenbailehen neurriak hartzeko eskatu nahi nuke. Nire ustez, ingurune horrek asko irabaziko luke baranda batekin”.

Zergak eta tasak %5,5 igotzea gehiegi da: “Nire soldata ez dute proportzio horretan igoko datorren urtean, eta oso gaizki iruditzen zait zergak hainbeste igotzea. Krisi egoeran gaude, eta Udalak hori kontuan hartu beharko luke. Nola egingo diegu aurre hileroko gastuei? Lotsagarria da, benetan”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



Karakate mikologia elkartekoei txalo bero bat eman nahi diegu, perretxikoei buruzko erakusketa antolatzea-gatik: “Gauza interesgarriak ikusi eta ikasi genituen perretxiko erakusketan. Oso ondo egon zen”.

Txalo bat Udalari, Elgoibarko turismo gida kale-ratzeagatik: “Aste honetan iritsi da nire eskuetara Elgoibarko turismo gida, eta polita iruditu zait, benetan. Gure herriarekiko neukan irudia aldatzeko balio izan dit, eta zergatik ez, turismo leku polita izan daiteke. Ideia polita izan da”.



I. URTEURRENA

ASIER LANDA PEREZ

*Zure irribarrearekin
 gogoratuko zaitugu
 beti izango zara
 gure bihotzean.*

2007ko azaroaren 9ean hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 8an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu.

Elgoibarko gizartea aztertzeke plan pilotua jarriko du martxan Agenda 21 egitasmoak

Herritarrek parte hartzeke foroa jarriko da martxan eguenean, azaroaren 13an

Elgoibarrek gizarte arloaren azterketa egingo du azarotik uztaiera. Izan ere, plangintza pilotua ezarriko du Jaurlaritzak Elgoibarren eta Sestaon, gizarte arloaren diagnostikoa egin ahal izateko, baina Agenda 21aren irizpideak jarraituz. Froga horren ostean, plangintza beste herri batzuetara zabaldu nahi dute.

Nazio Batuen Elkartearen plangintza da Agenda 21, garapen iraunkorra sustatzeko. Orain arte jarduera gehienak ingurumen arlokoak izan badira ere, ekonomia eta gizarte arloak ere hartzen ditu kontuan Agenda 21ek.

Herritarren partaidetza foroa

Elgoibarko plangintza pilotua bere-

hala jarriko da martxan. Gizartearen eta udal zerbitzu guztien diagnostikoa egingo dute (kultura, euskara, kirola, ongizatea eta abar), hiru lan-taldetan: bata alderdi politikoetako ordezkariekin, bigarrena udal teknikariek eta hirugarrena herritarrekin.

Herritarren lan-taldean nahi duenak parte hartu ahal izango du. Lehenengo batzarra azaroaren 13an izango da, 19:00etan Kultur Etxean. Alfredo Etxeberria alkateak herritarrek parte hartzeke deia egin du. Bere esanetan, azterketa herriaren onerako izango da. Uztaielean, diagnostikoa amaitutakoan, egin beharreko ekintzak garatu beharoko dira.



Oposizioak kontra bozkatu arren, datorren urterako zergak %5,5 igotzea erabaki zuen plenoak



PSE-EE eta PPko zinegotziek estreinatu zuten bat bateko itzulpen sistema.


Udal Gobernuak datorren urterako zergak %5,5 igotzea proposatu zion plenoari joan zen asteko eguenean (urriak 30), eta oposizioak kontra bozkatu arren, EAJ eta EAren aldeko botoekin hartu zuten erabakia.

Alfredo Etxeberriak *beharrezkotzat* jo zuen zergen igoera, eta Gipuzkoako gainontzeko udalek aplikatutako igoera berbera edo antzerakoa dela azaldu zuen. PPko Franciso Javier Nuñezeren ustez, krisiaren aurrean zergak Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI-IPC) aurreikuspenaren gainetik igotzea *ulertezina* da.

Iritzi bera azaldu zuten Ezker Batua-Aralar eta PSE-EE alderdiek ere. PSE-EEko Ovidio Campello izan zen hitza hartu zuen lehenengoa, eta kontrako botoa azaltzeko hiru arrazoi eman zituen: batetik, tasen igoera gainontzeko alderdiekin kontsultatu gabe erabaki dutela leporatu zion Udal Gobernuari, bestalde, orain arte KPI-IPC indizearen arabera igoerak proposatzen zirela azaldu zuen, eta aurtengo irizpidea ez dutela ulertzen esan zuen. Azkenik, krisi egoera honetan familia askok ezingo dituztela zerga horiek ordaindu adierazi zuen.

EB-Aralarren izenean Unai Zulaikak hitz egin zuen. Bere esanetan, KPI-IPCaren gainetik dauden igoerak onartezinak dira. Gainera, aurrekontuak oraindik zehaztu gabe daudenez, ezin zutela tasen igoeraren alde bozkatu esan zuen, eta azkenik, krisi egoera aipatu zuen: "Datorren urtea gogorra izango dela kontuan izanik, politikariek herritarren ganako keinu positiboak erakutsi beharoko genituzke".

Lekua **Altzola**



Zubibai elkarteko kideek Altzolako tren geltokiaren egoera kritikatu dute. Euren esanetan, oso arriskutsu dago, zikina, makinak txanponak bakarrik onartzen ditu, eta gainera, Euskotrenen web gunean ez da Altzola agertzen. Iñigo Palomino EuskoTreneko zuzendariarekin bilera egin zuten urriaren 23an gai hauek guztiak azaltzeko. Altzolakoen arabera, trenaren ibilbidean geldione gehiago jartzea “ezinezkoa” dela esan zieten EuskoTrenekoek. Zubibai elkartekoek borrokan jarraituko dutela esan dute, eta Arartekoarengana iristeko prest azaldu dira.

Izena **Franco**

Elgoibar-1936 plataformak bere blogean argitaratu duen udal agiri batean agertzen denez, Elgoibarko Udal Plenoak ohorezko alkate izendatu zuen Francisco Franco diktadorea 1949. urtean, “eta oraindik kendu ez dutenez, Francok Elgoibarko alkate izaten jarraitzen duela uste dugu”, salatu dute plataformakoek. Euren esanetan, Frankismoarekin zerikusia duten elementu guztiak kentzeko ordua da.

Irudia **Lur azpiko edukiontzia**

Udalak herriko lur azpiko zabor edukiontzi berriak jarriko ditu. Edukiontzi berriek ate bat edukiko dute atzeko aldean, eta giltza edukitzea ezinbestekoa izango da atea zabaltzeko. Bestalde, giltza sarrailetik ateratzeko, derrigorrezkoa izango da atea ixtea. Tabernari eta merkatariei, batez ere, baina herritar guztiei, oro har, zaborra botatzeko lana erraztea da helburua. Orain arteko zabor edukiontzien ahoa txikiagia zen, eta zabor poltsa handiak sartzeko arazoak izaten zituzten herritarrek. Bestalde, Upaiz Zaharra kalean lurrazpiko bederatziko edukiontzi jartzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Gainera buzoiak jartzea bakarrik falta da hiriko hondakin solidoak, ontziak, papera eta beira jasotzeko edukiontzi berriak zerbitzua ematen hasteko prest egoteko.



Bidezko merkataritza

Parrokiako misio taldeak bidezko merkataritzaren denda ireki du aurten ere. Denda goizez irekiko dute, 10:00etatik 13:00etara, Merkatu Plazan. Hilabete honetan, bihar irekiko dute azkeneko aldiz. Datozen hilabeteetan ondorengo egunetan egongo da zabalik: abenduan (4, 5, 11, 12, 13, 18, 19, 20, 22 eta 23), urtarrilean (2, 3, 4, 5), otsailean (5, 6, 7), martxoan (5, 6, 7), apirila (2, 3, 4) eta maiatzean (7, 8, 9). Bidezko merkataritzaren helburua herritarrei produktuak benetako prezioan helaraztea da, eta, bide batez, hirugarren munduko herrialdeen egoera salatzea.

Odol emaleak

Gipuzkoako odol bankua gaur arratsaldean etorriko da Elgoibarrerera. Odol emaleek arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean eman dezakete odola Osasun Zentroan.

Banku etikoaren aurkezpena

Datorren azaroaren 12an Fiare banku etikoaren aurkezpen publikoa egingo da. Banku etikoak banku laguntzailea izan nahi du, familia, emakume, gizon, erakunde eta elkarte kolektiboen finantza-erreserbak kudeatzeko. Testuinguru horretan, banku etikoak funtzio hezitzailea du aurreztaileekin eta kredituaren onuradunekin: bere dirua non eta zertan erabiltzen den ezagutzeko erraztasunak eskaintzen zaizkio erabiltzaileari. Hitzaldia Kultur Etxeko sotoan izango da, 20:00etan.

Rofin Basel laser ekoizlea, Idekoko bazkide laguntzailea

Ideko-IK4 eta Rofin Basel laser ekoizleak lankidetzak hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren helburua laser teknologiak industria munduan barneratu eta bultzatzea da.

asisko urmeneta

Komikiak egin, graffitiak pintatu eta euskarari buruzko hitzaldiak ematen ditu Asisko Urmenetak. Hilaren 11n, martitzenean, gurean izango da “Como aprender a hablar euskara en 40 años y un día fácilmente” hitzaldia emateko. Hitzordua 19:30ean dago egina Kultur Etxeko Hitzaldi gelan. Aurrez baina, berarekin hitz egin dugu euskararen egoeraz, eta euskara ikasleen profil berriaz, besteak beste. Umorea lagun, banan-banan erantzun du galdetutakoa.

Edurne Burgaña

“Euskararen erabilera sustatzeko bitaminaren antzekoa da hitzaldia”

Como aprender euskara en 40 años y 1 día fácilmente hitzaldia emango duzu, hain zaila da euskara ikastea?

Batetik, datu autobiografiko batetik habiatzen da izenburua: berrogei-eta urte ditut, eta oraindik segitzen dut ikasten. Gertatzen da bide inizatiko bat dela, noizbait hasi eta bizi guztirako dela: hil arte irauten duena. *Facilmente*-renak esan nahi du denbora sartzen dugula, baina erraz eta gozatzuz egiten ahal den bidea dela; eta ez beti penetan eta sufrikario eta gurutze bidea.

Zein motatako jendea joaten da hitzaldietara?

Hitzaldia bera pentsatua dago euskara ikasten ari direnentzako, edo ikasi baina euskaldunberri gordin-gordinak direnentzako; edo erabiltzen ez duten euskaldun zaharrentzako eta euskaldun den ororentzako. Baina, betiere, erabilera eta motiba-

zioa sustatzen ditugu; batez ere, motibazioa landu denon artean. Motibazioa landu beharreko gauza da, baita erdaldunen artean ere: erdaldun euskaltzalea landu beharreko figura da. Izan ere, herrialde honetan askotan erdalduna euskararen kontrako izaten da, eta bere jarrera inposatzen duena. Azken batean, erabilera sustatzeko bitaminaren antzekoa da hitzaldia.

Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu eta egitarauan sartu dute hitzaldia. Orain dela 25 urte eta orain, euskararen egoera zein da?

Zatiketa administratiboaren arabera, bilakaera oso diferentea eduki du mendebaldeko hiru probintzietan, Iparraldean, eta Nafarroan. Iparraldean hasteko, erabilera erori egin da: ezagutza ikaragarri apaldu da eta fenomeno hori hasia da orain berpizten kosta aldetik. Eredu erdaldunetik: baina erabilera urteotan erori egin da; bereziki



Nafarroa Beherean. Duela 25 urte Euskal Herriko eskualde euskaldunena zen, eta egunean buztanean dago. Hiru probintzietan ofizializazioak on egin dio, baina, arriskua ere bada, anitzetan ogibiderako tresna direlako. Beraz, ofizializazioak on egin dio, baina erabilera ez da espero zitekeena. Gero, Nafarroan, erresistentzia eta borroka hizkuntza da. Aurrera egin du, baina uste dut bi aldirik xahutzen ditugula indarrak: bata euskararen alde, eta bestetik Gobernuaren eta boterearen kontra. Egia esan, ez da suziariak botatzeko moduko egoera; eta horregatik behar dugu umorea.

Sasai batean euskara ikastera joaten zirenak benetan euskara ikasi nahi zutenak ziren. Gaur egun, titulazio bat atera beharra dagoelako joaten dira.

Hori hain zuzen ere hiru probintzietan gertatzen den fenomeno da. Iparraldean, adibidez, euskara ez da existitzen ofizialki, eta figura hori ez dago. Nafarroan neurri txiki bat badago, baina ez asko. Baina askotan gertatu zait euskararen inguruan hitz egitera joan eta hor dagoen entzuleria neurri handi batean da sufritzen eta beti penetan ari den entzuleria, titulazioa behar duelako eta euskararekin batere motibazioa ez dagoena. Batzuetan, gainera, anti-motibazioa duena: ea ateratzen dudana *puto euskara* hori. Figura hori berri xamarra da, baina nik erraten dudana bezala, entzule batek hain zuzen ere lagundu ninduen nire teoria indartzen: motibazioa beharrezkoa dela. Bi eratakoa izan daiteke: beharra sentitzen duelako, edo lana lortzeko behar duelako. Biak dira motibazioak, eta alde horretatik landu egin behar dira. Euskara zerbait formala ari da bihurtzen, eta buelta eman nahi izan diot hitzaldiarekin. Jostatzeko bidea da eta *hiper-korrektzio-petardo-zuzentzaile* horren aurrean, errebindikatzen dut jostatzeko be-

harra. Eta egokitasuna inportanteagoa dela zuzentasuna baino: momentu batean edozein erdarakada sartzea efikazagoa baldin bada Euskaltzaindiak promozionatzen duen gomendioa baino, aurrera.

Euskara batua ala euskalkia?

Ezberdintzen jakin behar da: bitarteko nazional batean, ETB batean adibidez, batua jo behar da euskaldun guztion bilgune delako, baina herriko aldizkari batean edo lagun artean, kalte egiten du.

Osasuntsu dago euskara ala medikuarengana joan beharra dauka?

Momentuz ez dago forensera joateko puntuan, eta hori mirakulua da eta oso berri ona, eta ez naiz mediku zalea. Baina, lehen esan bezala, ez gaude suziariak botatzeko moduan, baina, medikuarengana baino gehiago, euskarak joan behar du zirkora, zinemara, plazara, bidaiatzera... kalera atera behar du azken batean. Euskaltegiak bere funtsa eta helburua badauka, baina jakin behar da ixten: asteburuetan bereziki. Eta jolastu, eta ondo pasatu. *Libertitu*: askatasunean ondo pasatu.

Komikiak ere egiten dituzu, eta graffitiak pintatu. Hiru alorretatik zein landu duzu gehien?

Dena bat dela uste dut. Batzuetan lanbideagatik galdetzen didatenean, irudigilea naitzela esaten dut. Komikia egitean, irudia, hitza eta sekuentziarioa nola muntatu hartu behar da kontuan: hizkuntza beti euskara da. Graffitigintzan ere, hitzak garrantzi ikaragarria dauka, eta nire kasuan, beste behin ere, euskara da komunikazio bidea.

Zure irudiak, besteak beste, Kukuxumusu kamisetetan ikus daitezke. Zelan sortu zitzaizun proiektuan parte hartzeko aukera?

Oso erraza izan zen, anaiak eta beste bi sozioen artean martxan jarri zutelako enpresa: lehenbiziko momentutik, bai izena aukeratzeko eta baita marrazkiak egiteko

deitu zidaten. Oso gauza hurbila izan da: entxufe genetikoa eduki dut. Hala ere, ez da batere erraza enpresa familiarrean lana egitea: oso gustura nago, baina, nagusiaren anaia izatean, konfiantzan oinarritutako kontratua da, eta elkarri mesedeak egiten dizkiogu. Elkarri lanak eginarazten. Oso mundu interesgarria iruditzen zait: Iruñetik abiatu den proiektua da, betiere kulturaren inguruan eta hizkuntzaren alde, eta irudimena eta umorea. Horiek guztiak asko interesatzen zaizkit, eta gustura nabil.

Euskal kamasutra liburuan parte hartu zenuen.

Marrazkiak egin nituen. Idazteko oso alperra naiz eta ez naiz ona. Marrazkiak egiten ere ez naiz oso ona, baina asko egiten ditut egunean zehar eta trebetasuna landu dut. Mattin Irigoienek, Antton Lukuk eta Itxaro Bordak idatzi zuten, Iparraldean gaur egun dauden idazle onenek. Eta marrazkilariak Marko Armaspach eta ni izan ginen.

Euskal Herrian ligatzen da?

Ez. Erraten dena baino gehiago; baina, nahi dena baino gutxiago. Jakin egin behar non eta nola, eta arte hori ez dakit badagoen menperatzen duenik. Hala ere, badira batzuk lortzen dutenak, beraz, badago manera ligatzeko.

Zergatik Euskal kamasutra, gazteleeraz eta euskaraz postura diferenteak erabiltzen dira ohean?

2000 urteko liburua da, eta garai hartan, abenduaren 28an Euskaltzaindiak Euskal kamasutra liburua idatzi behar zuela argitaratu zuten *Egunkaria*-n. Eta askok porrua jan zuten. Handik denbora gutxira, liburua kaleratzeko erronka hartu zen. Posturei dagokionez, zibilizazio bakoitzak bereak edukiko ditu, baina zorionez, gaur egun, internazionalismoari esker munduko postura guztiak ikasteko aukera dago.

**Euskara zerbait formala ari da bihurtzen,
eta buelta eman nahi izan diot hitzaldiarekin**

Gure berbak

Aditza (32): Ahalera 2

Ahalerazko aditzetan (*Diru nahikua badot, eta Atxagaren liburu berrixa erosi neike*), ezezko esaldixetan, bada beste beste egitura bat ere ahalera adierazteko: *ez daukat/dago ... -terik*.

- ♦ *Aurten ez daukat oportetara juaterik.*
- ♦ *Jatetxe horretan ez dago erretzerik.*

Esaldixak baiiezkuak diranian, ezin izango dogu forma hori ibili:

- ♦ *Aurten oportetara juatia daukat.*
- ♦ *Jatetxe horretan erretzia dago.*

Biharbada zenbait herritan erabiltzen ditue holako formak, Gipuzkoako kosta aldian-edo (Zarautz aldian, esaterako), baiña gure herrixan ez dauke tradiziorik.

Tradiziorik ez daukan beste forma bat da gaztiak (eta euskaldun berriak) gero eta gehixago erabiltzen dabean bat; hauxe, hain zuzen:

- ♦ *Mikel etorri ahal da gurekin oportetan.*
- ♦ *Amaittu ahal dogu Karakateko igoeria domekan.*

Halako egitturak ere ez dira elgoibartar peto-petuak, egixa esateko. Nafarrua aldian entzuten dira AHAL darabixen formak, baiña beste era batera:

- ♦ *Egiten ahal dugu mendi-ibilaldi hori.*

Gure tradiziokuak diranak honelako hauek dira:

- ♦ *Oin dakaten suelduakin, ezin laike egiñ holakorikan baiña.*
- ♦ *Ezin leike aguantau hola.*
- ♦ *Haiñ azkar ezin leikezek etorri.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1955

Aste honetako erretratu Juanito Gorostizak ekarri digu. Argazkian agertzen diren emakumeak elgoibartarrak dira, baina argazkia Madrilen aterata dago. Urte hartan CD Elgoibarrek bigarren mailarako igoera fasea jokatu zuen Rayo Vallecanoren kontra Madrilen, eta Maria Izagirre eta Josefa Arakistainek bidaia aprobetxatu zuten Madrilgo senideak bisitatzera joateko. Futbolera joan beharrean, Juanito Valderramaren ikuskizuna ikustera joan ziren eta turismo apur bat egin zuten.

Ezkerretik eskumara: Maria Izagirre "Upai" (†) (Inazio Izagirre atleta ospetsuaren arreba), Nati Gabilondo (†) (Canuto Gabilondo Parrokiako koroko abeslariaren arreba), Josefa Arakistain (†) (Canutoren emaztea) eta Beatriz Gabilondo (†) (alaba).



ESKERTZA

CARLOS ARRIZABALAGA CARRERA

2008ko urriaren 30ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Urrian...

JAIO TAKOAK



Jakes Barrenetxea
Berasaluze Urriak 15
Ander eta Oihana



Naroa Arandía Arenas
Urriak 24
Eduardo eta Nerea



Oihane Etxabe Bergara
Urriak 30
Iñaki eta Nekane

June Rodríguez Alvarez
Urriak 4
Ignacio eta Ana Isabel

Gorka Alberdi Arrieta
Urriak 7
Haritz eta Zuriñe

Nora Parada Alvarez
Urriak 9 Migel Angel
eta M. Guadalupe

Kattalin Maguregi
Urzainki Urriak 15
Pedro Jesus eta Idoia

Leire Varona Mateos
Urriak 15
Jabier eta Yolanda

Jon Astigarraga Alberdi
Urriak 26 Jose Ramon
eta Amagoia

EZKONDUTAKOAK

- Unai Arizmendiarieta eta Nerea Ansola Urriak 4
- Aitor Olasolo eta Amaia Gabilondo Urriak 11
- Guillermo Burgoa eta Lukene Arrizabalaga Urriak 18

HILDAKOAK

- Rosa Santos Suarez 79 urte (Urriak 06)
- Digna Vieitez Calviño 82 urte (Urriak 07)
- Catalina Cabrera Martin 92 urte (Urriak 08)
- Matilde Lejardi Gabilondo 88 urte (Urriak 09)
- Celestino Carrasco Lozano 92 urte (Urriak 21)
- Nemesio Ansola Arana 89 urte (Urriak 21)
- Pepita Perez Cortes 82 urte (Urriak 29)
- Pilar Cabrie Iriondo 74 urte (Urriak 29)
- Ana Maria Villar Arana 78 urte (Urriak 31)
- Carlos Arrizabalaga Carrera 89 urte (Urriak 31)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalie-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

‘Tertuliak’ programa hamazazpi lagunekin hasi dute aste honetan

Euskara praktikatu nahi duten 11 lagun daude

Azaroaren 3an, eguaztenean, hasi ziren euskaraz hitz egiteko *Tertuliak*. Euskara praktikatu nahi duten hamaika lagunek eman dute izena 2008-2009 ikasturtean. Sei talde osatu dituzte eta talde bakoitzean euskaldun bat izango dute bidelagun, astean ordu-betez. Azarotik ekainera arte arituko dira 2008-2009 ikasturtean parte hartuko dutenak. Programa martxan jarrita bada go ere, parte hartzeko aukera zabalik dago. Parte hartu nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrara jo dezakete interesatuek, edo 943 741 626 telefonora deitu.



Bederatzi urteko ibilbidea

Tertuliak programa, eguneroko bizi-tzan euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dutenei, euskaraz hitz egiteko erraztasunik edo ohiturarik ez daukatenei eta euskara ikasten dihardutenei laguntzeko doako egitasmoa da. Dakiten euskara era-

biltzeko eta ez dakitena ikasteko beste aukera bat da.

Bederatzi urtez jarraian, *Tertuliak* programa Elgoibarko Izarra kultur elkarteak kudeatzen du, Udalaren babesarekin eta AEK eta Udal Euskaltegiaren laguntzarekin.

Haizeak antolatutako hainbat ekintza azaroan

Azaroan zehar Haizeak antolatutako hainbat ekimenez gozatu ahal izango du nahi duenak. Hilaren 21ean, 19:30ean, Sukaldaritza begetarianoaren inguruko hitzaldia egingo dute, eta abenduan, horren inguruko ikastaroa egingo dute. Hilaren 24an, 17:00etatik 19:00etara, *Artearen arratsaldeak* ekimena egingo dute Kultur Etxean, eta hurrengo egunean, hilaren 25ean, 18:00etatik 20:00etara, Vargas Llosa idazlearen *Travesuras de una niña mala* irakurriko dute. Amaitzeko, hilaren 28an, *Las hermanas Bolena* filma botako dute.

Martxan dira Euskara errefortzuak

Elgoibarko Izarrak martxan jarri duen *Euskara Errefortzuak 2008* programan 27 haurrek eman dute izena. Jolas berriak ikasiz, esku lanetan trebatuz, kantatuz, irteerak eginez, eta oro har ondo pasatuz, euskarak eskolaz kanpo duen dimentsioa erakutsi nahi dute. Eskolatik irten ondoren jasoko dituzte saioak. Hala ere, ez dira beti eskola barruan geldituko, eta horrela, herriko txokoak ezagutuko dituzte. Programaren bidez, euskara errefortzatzeko eta soltura hartzeko aukera izango dute. Errefortzu saioak azaroaren lehen astean hasi eta maiatzera arte izango dira. Guztira bost talde osatu dituzte. Hala ere, ikasturtea aurrera joan ahala partaide gehiagok izen emango dutela espero da, edozein momentutan izena eman daiteke-eta.

Programa hau 2003-2004 ikasturtean jarri zuten martxan Elgoibarren “esperientzia pilotu” moduan. Orain arte ikasturte amaieretan atera dituzten ondorioak hain onak izan direnez, arduradunei garrantzitsua iruditu zaie programari eustea.

Karakate mikologia taldearen perretxiko erakusketak bisita ugari eduki ditu



Elgoibarko Karakate mikologia elkarteak perretxiko erakusketa egin zuen joan den domeka goizean, 11:00etatik 14:00etara. Baina, herriko umeek astelehenean perretxikoak ikusteko beste aukera bat eduki zuten. Hala, Ikastolako eta Herri Eskolako 300 bat ikasleek erakusketako 166 espezieak ikusi eta elkarteko kideek emandako azalpenak entzun ahal izan zituzten.

Elgoibarko turismo gida, posterrak eta postalak argitaratu ditu Udalak

7.158 turismo gida argitaratu dituzte, lau hizkuntzatan

Elgoibarko Udalak gure herriak gauza ugari eskaini ditzakeela adierazi nahi die bai herritarrei, bai gure herria ikustera datozenei, argitaratu berri dituen gidaren, posterraren eta postalaren bitartez. Guztira, 7.158 turismo gida argitaratu dituzte lau hizkuntzatan, 3.000 poster eta 6.000 postal.

Elgoibar industria baino askoz gehiago dela azpimarratu nahi izan dute lan horretan: "Goi mailako teknologia, ohiturak, ondarea eta natura uztartzen dira. Gure zeregina da horiek duten balio turistikoa zabaltea eta jendeari ezagutaraztea; bai behintzat, balio horretaz gozatu nahi badugu", azaldu du Blanca Salegi Kultura Saileko teknikariak.

7.158 turismo gida argitaratu dituzte; horietarik 1.080 ingelesez daude, 1.020 frantsesez, 2.040 euskaraz, eta azkenik,



3.010 gaztelaniaz. Horrez gain, 3.000 poster argitaratu dira, bi formatutan; eta 6.000 postal, lau formatutan.

Gida, posterrak eta postalak Herritarrentzako Arreta Bulegoan eta Kultur Etxean egongo dira herritarren esku. Posterrak, aurreko tokietan eta Pitxintxu eta Ize liburu-dendetan ere bai: handiak euro baten truke, eta txikiak eta postalak 60 zentimoren truke.

Hainbat hizkuntzatan idatzi dituzte euren izenak ipuin markatzaileetan gaztetxoek



Haiena, gurea: tolerantziarako irakurgaiak kanpainaren barruan, bi ekintza egin dituzte asteon Udal Liburutegian. Martitzenean, Pedro Ruiz ipuin kontalariak herrialde ezberdinetako ipuin bi kontatu zizkieten bertara joandako 40 umei: Errusiakoa izan zen lehena, eta bigarrena Togokoa. Herenegun, eguaztenean, ipuin markatzaileak egin zituzten, eta umeek euren izenak hainbat hizkuntzatan idatzi zituzten: errusiarrez, arabiarrez, eta txinatarrez.

'Magia teilatuen' antzezlanaren domekan, 16:30ean

Domekan herriko gaztetxoek *Magia teilatuetan* antzezlanaren ikusi ahal izango dute herriko Antzokian. Txalo produkzioak taldearen antzezlanaren 16:30ean hasiko da. Ordubeteko iraupena dauka, eta sarrera doan izango da. Betisa izeneko neska da protagonista eta magiaren mundu zirrargarrian barneratuko da Falasoz eta Dorleta magoen bitartez. Magia eta irudimenezko lehiaketa antolatuko dute bi magoek, eta Betisa euren arteko lehiaren lekuko eta epaile bihurtuko da.



Azaroan hainbat ikastaro egin ahal izango dira

Egur arte tailerrak antolatuta *olio margoak* izeneko 30 orduko ikastaroa egiten ari dira. Martitzenean hasi ziren eta astelehenetik eguenera batzen dira 18:30etik 20:30era, Egur arte tailerraren lokalean: Aita Agirre plazako erdiko ateko bigarren pisuan. Izena eman nahi duenak elkartearen lokalera jo behar du 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bestalde, astelehenetik Interneteko oinarriko ikastaroa ematen ari dira: hamasei urtetik gorakoentzako da, eta 14ra arte iraungo du. Gero, hilaren 17an, berriro emango dute ikastaro bera, hilaren 28ra arte. Ikastaroak KZ Gunean izango dira eta izena eman nahi duenak 943 748 828 telefono zenbakira deitu behar du.

ZUHAITZ GURRUTXAGA

Futbol jokalaria

Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak Real Unionen jokatzen du, joan den astean Real Madrilen aurka irabazi zuen taldean. Gurrutxagak ezin izan zuen jokatu, baina bueltako partidari zelaian egongo delakoan dago, eta “susto txiki bat” emateko esperantza dauka.

“Guk ez daukagu ezer galtzeko, eta lasai joan gaitezke, disfrutatzen”

Real Madrilen aurka irabazi egin zuen Real Unionek, baina zuk begira egon behar izan zenuen...

Partida bat baino gehiago ditut garrantzitsuak aste hauetan, eta entrenatzaileak erabaki zuen jokalaria banatzea, eta nik bueltako partidari jokatu beharko dut.

Zelan sufritzen da gehiago, jokatzen ala begira?

Barruan sufritzen da gehiago: jokalaria onak dira eta gogorra da fisikoki euren aurka aritzea, eta, gainera, partida irabaztea. Gure asmoa bigarren partidarako bizirik egotea zen, eliminatoria ez egotea gutziz hautsita, eta, beraz, asko sufritu nuen. Berdinketa bat lortzea zen asmoa, eta, pentsa, azkenean irabazi egin genuen.

Bernabeun jokatu behar duzue orain. Zer sentitzen da?

Orain dela urte batzuk Realarekin Bernabeun jokatzeak suertea eduki nuen. Beti komentatu izan da beldur eszenikoa ematen duela, daukadan orotzapena da momentuan pixkat bat sufritu nuela. Baina guk ez daukagu ezer galtzeko eta lasai joan gaitezke, disfrutatzen.

Ze espektatibarekin zoazte Madrilerara?

Goi mailako taldea izanda ez dakit irabazteko aukera asko ditugun ala ez, baina hasieran guk daukagu abantaila. Espektatiba da ezer galtzeko gabe goazela eta, zeinek daki, akaso historia egingo dugu!

Real Union talde handiak Kopatik kanporatzen abila izan da.

Azken urteretan egin dituzte halakoak, baina formatoa ezberdina zen.



Partida batera jokatzen zen Kopa eta eliminatoria talde ahularenaren etxean izaten zen. Horrek pixka bat errazten du bidea. Orain, bi partidatara jokatzen da eta zailagoa izango da handiak kanporatzea, baina zaila izango da.

Noraino ailegatzeko aukera duzuela uste duzue?

Gure lehenengo asmoa, eta garrantzitsuena, aurreko bigarren mailara igotzea da. Taldea horretarako egin da, eta hori da asmoa. Baina Kopan susto bat emateko esperantza txikia daukagu, eta ez badugu lortzen, ez dugu negarrik egingo. Lasai joanda, igual lortuko dugu sustoa ematea.

Kopaz aparte, Liga zelan doa?

Gure taldean lehenengo postuan gaude, eta garrantzitsuena denboraldia lehenengo lauren artean amaitzea da. Gero oso zaila da, gauza asko pasatu behar dira, baina momentuz bide onean gaude.

Reala laga zenuenetik zelan joan da zure ibilbidea?

Bueltak batzuk eman dituzte Espainiako taldeetatik eta orain dela bi urtera arte gauzak ez zaizkit oso ondo joan kirol aldetik: pertsona moduan asko ikasi dut, baina kirol arloan ez zaizkit ondo joan gauzak. Hirugarren urtea daramat maila hobean eta partida asko jokatzen, eta garrantzitsuagoa sentitzen taldearen barruan, bai Lemoan, Zamoran eta orain Real Unionen. Nire karrerako momentu onenean nago, gusturen nabilena eta lanarekin gozatzen aspaldiko partez.

LANA

ESKAERA

• Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 16:00etatik aurrera.

☎ 639 240 038

• Neska gaztea, nagusiak edo umeak orduka zaintzeko prest, eta garbiketara lanak egiteko prest.

☎ 689 202 618

• Umea edo nagusiak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko edo arropak lixatzeko prest. Egun osoan zehar.

☎ 639 505 375

• Umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketara lanak egiteko eta arropa lixatzeko prest. Egun osoan.

☎ 686 234 612

• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 636 053 115

• Mutila, lanerako prest. Esperientzia elektrizitatean, igeltsiritzan eta pintura lanetan. ☎ 636 053 115

• Neska, lanerako prest gida-baimenarekin eta kotxearekin.

☎ 669 154 143

• Klase partikularrak emateko (lehen maila) neska eskaintzen da

☎ 608 992 601

• Neska gazte bat eskaintzen da garbiketara lanetarako (atariak, etxeak...) edo etxeak garbitzeko. ☎ 696 770 480

• Emakumea, nagusiak zaintzeko prest edo garbiketara egiteko. Gaeuz.

☎ 699 0813 826

• Mutila, banatzaile lanak edo kamiolari lanetarako prest.

☎ 634 491 408

• Neska, umeak zaintzeko prest.

☎ 659 320 774

• Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko prest edo garbiketara egiteko. Goizez edo arratsaldez.

☎ 680 250 527

• Neska, garbiketara egiteko edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 649 212 944

• Emakumea, nagusiak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 638 338 816

• Emakumea, zerbitzari lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Emakumea, lanerako prest, nagusiak zaintzeko esperientzia.

☎ 943 531 608

• Neska, pertsona zaharrak zaintzeko edo garbiketara lanak (tabernan, portaletan...) egiteko prest.

☎ 699 609 190

• Emakumea, umeak zaintzeko prest, goizeko 8etatik 9etara, eskolara eramateko. ☎ 696 308 546

ETXEBIZITZA

SALGAI

• Etxea salgai Elgoibarren, Pedro Murgurua etorbidean, 75 m², 3 logela, egongela, sukaldia, komuna, despentsa, balkoiduna, bista onak, oso argitsua eta igogailuarekin. Berriztatzeko.

☎ 628 159 533

• 2 logelako etxea salgai Santa Klaran, altzariekin. Orain dela urte gutxi berria, 2 balkoi. Eguzkitsua, igogailuarekin eta berogailuarekin. 198.000 euro

☎ 653 735 849

• Etxea salgai San Ignazio 3an. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Oso argitsua, balkoiduna, bista onak. Altzariekin, guztiz berria! Gas naturala, ganbara eta igogailua.

☎ 690 786 618

• Etxea salgai Mutrikun, Samikolla pasealekuan. Oso bista ederrak, 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena kanporantz. Altzariekin, gas naturala eta ganbara.

☎ 670 588 480

• Pisia salgai Elgoibar erdigunean, guztiz berria, bizitzeko hasteko. 165.000 euro. ☎ 639 074 542

ALOKAIRUA

• Pisia alokairuan Errosario kalean, 2 logelarekin. ☎ 688 669 482

• Etxea alokatzeko da Mendaron.

☎ 658 379 393

LOKALAK

• Garajea saltzen da Elgoibarren (erdigunean), 23m² (bi kotxerentzako edukiera), eta bi solairuarekin (zutik egoteko moduan). ☎ 637 946 954


MOTORRA

• Honda CBR 600 F salgai. Beltza, 32.000 km, gurrpil berriak. 6.000 euro

☎ 660 424 855

• Opel Astra 1.7, 100 zaldi, Sport. Urte eta erdikoa. Etxeko garantiarekin. 29.000 km. Beltza, oso ondo zaindua, extra askorekin. 13.000 euro.

☎ 635 750 471



BEKAK

EBALUAZIOA

Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio eta Kalitateko Institutu Nazionalen hezkuntza ebaluazio eta estatistikako prestakuntzarako 13 beka. Epea: azaroak 8

KANPO HARREMANAK

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Kanpoko Gizatalde eta Euskal Etxeen eremuan espezializatzeko hiru beketarako deialdia. Epea: abenduak 1

LEHIAKETA

ARGAZKILARITZA

SOS arrazakeria. "Kirola Integrazio eta Bitarteko" IV. argazki lehiaketa. Epea: abenduak 9

LANA

ELEKTRIKARIAK

Lehiaketa-oposizio bidez obra eta zerbitzuetako elektrikarien lan-poltsa osatzeko deialdia Bergarako Udalean. Epea: azaroak 14

BI GIZARTE LANGILE

Zumaiaiko Udalean Gizarte Zerbitzuetako bi lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: azaroak 19

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean, Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneretik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Anel** Etxeko bolatinerak bihar lau urte. Etxekoen, eta batez ere, Nere, Aritz eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Naiara**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nuria**, gurasoen eta anai-arreben partez.



• Zorionak, **Emilio**, gaur 80 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Elena**, gaur urtebete egin duzulako. Patxo bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, hilaren 10ean bost urte egingo dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat, bereziki, Jonen partez.



• Zorionak, **Unai**, hilaren 13an bost urte egingo dituzulako. Mila muxu guraso, arreba eta Aneren partez.



• Zorionak, **Danel**, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki, Aroaren partez.



• Zorionak, **Iraia**, zure osaba-izeko eta Nuriaren partez.



• Zorionak, **Nuria**, gaur urtebete egin duzulako. Familiakoen partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Monika**, zure iloba Lorena eta Maitaneren partez, eta muxu bat Elena eta Aitorren partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 744 112



CORDON VILARCHAO

San Rikx, 7 behea
Ptl. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 748 570

DEKORAZIOA

Kargu eta barmeko estakura
Zolak ezarpenak
Lakadura: egar, aluminio, PVC,
Pintura onkorta

grupo
ROYALMEY



Olaia
Laser depilazioa

estetika

Ordutegi berria!!

ORAIN ASTELEHENETAN ZABALIK
9:30 - 12:30 / 15:00 - 19:30

ASTEAZKENAK JARRAIAN
10:00 - 20:00

LARUNBATAK
8:00 - 13:00

Tel. 943 74 27 25 San Inazio, 4 behea - 20670 ELGOIBAR - www.ammgroup.es

OKINDEGIA

9 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 7 Etxeberria (Santa Ana)
- 8 Fernandez
(*Goizez Etxeberria Errosario)
- 9 Fernandez
- 10 Zabaleta
- 11 Yudego
- 12 Etxeberria (Errosario)
- 13 Ibañez
- 14 Garitaonandia

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Los girasoles ciegos»

8, zapatua: 19:00/22:15
9, domeka: 19:00
10, astelehena: 21:30

Spainia, 2008. Zuzendaria: Jose Luis Cuerva. Aktoreak: Maribel Verdu, Javier Camara, Raul Arevalo, Irene Escolar.
36ko gerra osteko urte ilunak dira. Elenak, etxeko atea ixten duen bakoitzean,

bere sekretuak gordetzen ditu. Elenita alaba nerabeak ihes egin du etxetik mutil-lagunarekin, haurdun. Ricardo senarra, berriz, ezkutuari bizi da, faxisten mendekuarien beldur.

kirola

9 domeka

8:30 Izkira irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak eta Haizea emakume taldeak antolatuta, Izkiko parke naturalera irteera.

hitza/diak

11 martitzena

19:30 Asisko Urmenetaren hitzaldia

Udal Euskarategiaren 25. urteurrenoko ekitaldia. Asisko Urmenetak "Cómo aprender euskara en 40 años y un día fácilmente" hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxean.

12 eguaztena

20:00 Banku etikoaren

Fiare proiektua

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, banku etikoaren Fiare proiektuaren aurkezpen publikoa izango da. Kultur Etxeko sotoan.

13 eguena

19:00 Agenda 21 foroa

Tokiko Agenda 21ean txertatu beharreko arloei buruzko hausnarketa egiteko herri partaidetza foroa. Kultur Etxean.

antzerkia

7 barixakua

22:15 Gronholm metodoa

Txalo produkzioak taldeak Gronholm metodoa antzezlanatularatuko du. Herriko Antzokian

9 domeka

16:30 Magia teilatuan

Txalo produkzioak taldeak, Magia teilatuan antzezlanatularatuko du. Herriko Antzokian. Doan izango da.

LUDOTEKA

AZAROAK 8

ZAPATUA

16:30etik 19:30era

LUDOTEKA irekita egongo da LH 4-6 ikasturte bitartekoentzat

GAZTELEKUA

AZAROAK 8

ZAPATUA

17:00 etatik aurrera TXAPA TAILERRA



7 barixakua

Ikasle egun txikia

Bazkaria, bideo emanaldia eta kontzertuak izango dira gaztetxean.

14 barixakua

18:00 Zirko txikia

Atxutxiamaikak antolatuta, Giriguai zirko txikia izango da. Herriko Antzokian.



Gure gomendioa

Gronholm metodoa

Gaur, barixakua, 22:15ean

Txalo produkzioak taldeak Gronholm metodoa antzez-lana taularatuko du gaur gauean Herriko Antzokian. Multinazional batean exekutibo plaza betetzeko lau hautagairen arteko istorioa da. Gela batean bildu dituzte azken probak egiteko. Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Itziar Ituño dira aktoreak.



Zerikasi

IKASTAROAK

Dantza afrikarrak

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: azaroa/Bukaera data: 2009ko ekaina
 Non: Eibarren
 Prezioa: 45 euro hileko

Batuka

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
 Hasiera data: Azaroa/Bukaera data: 2009ko ekaina
 Non: Mendaron
 Izenemate bukaera: Kontsultatzeko

Ekialdeko dantzak

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
 Noiz: Azaroaren 29an eta 30ean
 Non: Elgoibarren
 Izenemate bukaera: Azaroak 10

Enpresa eta marketing kudeaketa

Norentzat: Lanbiden alta emanda daudenentzat
 Hizkuntza: Gazteleraz
 Hasiera data: 2009-01-19/Bukaera data: 2009-03-04
 Non: Elgoibarren
 Izenemate bukaera: Kontsultatu

Interneteko oinarriko ezagupenak

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Euskaraz eta gazteleraz
 Hasiera data: 2008-11-17/Bukaera data: 2008-11-28
 Non: Elgoibarren
 Izenemate bukaera: Plazak bete arte

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Juno»
 (Paradisuzinema,
 Gaztetxean)
 9, domeka: 18:30

«Los limoneros»
 (Ongarri)
 13, eguena: 21:30

Frantzia, Israel, 2007. Zuzendaria: Eran Riklis. Aktoreak: Hiam Abbas, Doron Tavori, Ali Suliman. Iraupena: 106 minutu.
 Salma 50 urte inguruko alarguna da. Zisjordaniako herrixka txiki batean limoiak landa-

tzen ditu. Erakundeek uste dute lur eremu hori mehatxu bat dela ministerioaren segurtasunerako. Baina Salma alargunak ez ditzkie laga nahiko lur horiek eta ez du amore emango bere limoien defentsan.

Argazkiak

garagardo festa

Elgoibarko Gaztetxeak antolatuta, Garagardo festa egin zuten joan den zapatuan. Mota askotako garagardoak edan ahal izan zituzten bertara joan zirenek, eta jateko saltxitxak eduki zituzten. Festari giroa emateko Mutrikuko bi musika talde aritu ziren: The Wet Band eta Galerna Rock.





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...
Bach loreak, P.N.L., makrobiotika, janari
biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz,
etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 531 953

669 565 745

Goiz eta arratsaldez

Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia,
audiometria)

San Frantzisko, 21

Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00

17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile
linfatikoa, osteopatia, kirol masajea
(bendaje funtzionala eta "taping
neuromuskularra", lehiaketa
bendajea.) San Frantzisko kalea,
40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera

8:00 - 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@infomed.es

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurrira egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren
azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30

15:30-19:30



abendutik aurrera

Elgoibar
KOLORETAN

ikusiko dugu



Canis herria hobeto
ezagutzeko nahasi joko